



ZER
ALDIZKARIA

440. zenbakia
2017 IRAILA

**Bizkaitarrei
Bizkaieraz**



www.euskerazaleak.biz • info.euskerazaleak@gmail.com

ADAN DE YARZA

*J. Iñaki de Madariaga Vidal
Aita Zenon Uriguenek euskeratua*



**ZER, ZEOZER BAI
ETA EZ EDOZER**
Enrike Itxasalde



**EUSKALERRIRA
KRISTAUTASUNA**
Zenon Uriguen, Pasiotarra

Euskalerrian euskeraz EUSKERAZALEAK

2017-2018 IKASTURTEA

BIZKAIERAZ 50. IKASTAROA IRU MAILLA

Egunak: astelen eta eguasten
edo astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz eta arratsalde

Ordaña: 150 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
urrutizkiña 94 423 53 22
Bilbao 48001

Asiera: urriaren 9an

50. CURSO DE EUSKERA BIZKAINO 3 NIVELES

Días: lunes y miércoles
o martes y jueves

Horas: Mañana y tarde

Curso completo: 150 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
Teléfono 94 423 53 22
Bilbao 48001

Comienzo: 9 de octubre

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitamabost euro) kontu onetan:

**EUSKERAZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
ES28 2095 0000 74 2000089615**

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!
Ebagi orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 35 €.
Ez dozu ezer be idatzi bear.
Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errikoa.
Eskerrik asko!

Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

info.euskerazaleak@gmail.com

Laguntzaille



ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85



ZER, ZEOZER BAI ETA EZ EDOZER


Enrike Itxasalde

Aspaldion Iñaki, gure Iñaki, betiko Iñaki eta betirako gura genduken Iñaki, atzetik, aurretik, alde guztietatik ibili jat zeozer idatzi bear dodalakoan ZER-en 40 urterena dala eta. Aurreko baten Kepa Uriarteren eriotza zala eta, bardin ibili zan. Berbea emon eta zorra ordaindu neutsan, naiz eta ostean zorduna biurtu nintzan barriro geiago idatziko nebala esan neutsolako.

Guadiana ibaia agertu eta desagertu egiten dan moduan orrelaxe nire idazkitxoak aldizkari onetan. 40ren bat urte izango dira, 39 zeatzago esateko 9garren zenbakian leenengoz agertu nintzan eta, zeozer idazten asi nintzala. Gero sasoi baten alde batera itzi neutsan lan orreri, baina Martinen eraginak bidera ekarri ninduan barriro denporatxo batez. Berba gitxigaz asko esaten eban gizona Martin.

Aurreneko denporak gogoratu bear badira, asi gaitezana. Lanean asi barria, Bilboko ikastola baten. Oraindik ikastola izena ere ez eben onartzen eta ikuskariiek ere “kristauz idatzitako” koaderno edo ingurraztiak erakusteko eskatzen ebazan, naiz eta erlijioiko koaderno izan; barrabana! koaderno kristauagorik ezin emon ba! (neuri gertaturikoa). Martineri kontatu neutsanean abertzalea izatea pekatua zala emoten ebala esan neutsan. “Neuk parkatuko deutsut pekatu ori” erantzun eustan. Abade danatarako.

Nire gomutapenak Euskerazaleak erakundearen gelatxo batera eroaten nabe; maai baten inguruan ainbat aldiz alkartu ginan Bernar Ibarra, Iñaki Egurrola, Anton Landajuela, Martin Olazar, Josu Arenaza. Iñaki Zubiri, ni neu... Baten bat geiago ere egongo zan bearbada baina ez naz gogoratzen. Izendatzen ez badot parkatu naiala eta zuzentzen badeust onartu eta parkamena eskatuko deutsat barriro. Maai buru Martin eta guztion elburu Bizkaiko euskerearen iraupena. Batzarrean ez egon arren atzetik ez egoan talde makala idazle moduan: Lino Akesolo, Santi Onaindia, Iñaki





Lino Akesolo

Zubiri, Bixente Latiegi, gizpuzkoeraz idatzi arren euskalkien aldeko gizon gartsua, Paulinen bertsoak, Agustin Zubikarai ondarrutarra, ... zerrenda luzea, euretariko batzuk ile-oro utsik ez ebenak egiten. Orduan gazte eta txiki sentitzen nintzen alakoan artean. Gaur egun txiki baino ez.

Nire txikitasunean beti eskutatu dot nire izena goitzenen baten menpe, “aberkide”, “itxas alde”..., eta parkatuko nau irakurleak oraingo onetan ere eskutatzen badot. Aurretik aipatutakoen orkatilaren alturera ere ez naz eltzen nire izena argitara emoteko, lotsatu egiten naz. Naiz eta nire lan ibilbidean sarritan jendaurrean berba egin bear izan dodan lotsa poltsikoan gordeta, ez naz gauza oraingoan nire izena orrelako pertsonen ondoan jartzeko.

Maisu ederrak ziran ikasi gura ebanen-

tzako. Denpora gogorren semeak, askori begiak zabaldu eta bidea erakutsi ebenak, itxura baten onoz nekatzen ez ziranak eta unerik gogorretan ere areioaren aurren makurtzen ez ziranak. Txapel-oker asko orren lekuko.

Posta elektronikobako denpora aretan, artikulotxoak eskuz emon bearra egoan, inoiz Bermeora edo Mungiara ere joan bear Martinegaz egoteko. Gero beraren zuzenketak, idazkia barriro makinaz idatzi, eta irarkola edo inprentara eroan. Orduan ordenagailua izan baleu! Sasoi aretako baliabideekaz ekoizpena oparoa izan zala esan geinke, baina zer izango ete zan gaurkoekaz?.


Eta bizkaieraz, korrontearen kontra uger egitea inoiz ez eredugarriago. Batue-ra zan modernoa, bizkaiera eta beste euskalkiak atzean geratutakoen eta zaarren kontuak ziran. Eta modaren kontra joiana markatuta gereatzen zan... atzerkoia. Gero denporaren ostean orduko modaren jarraitzaile batzuk bizkaiera goraiatu eta erabiltzen asi dira... besteak beste bertsolari ospetsu batzuk. Inoiz konturatuko ete gara euskalkiek, bizkaiera barne, gordetzen daben altxorraz?. Ered formalak bearrezkoak dira bai, baina ez itxiak, bestela aberaztasuna galtzeko zorian jartzen gara. Zenbat astokeri egin dira eta egiten dira batasunaren izanean: artegintzan, izkuntzan, politikan (una, grand... tik gaurko estatuaren batasunerainoko), Batasuna eta "batukeria" (or doa berbea baten batek iztegiaren baten sartu gura badau)

50 urte Euskarazaleak, DEIA-k ere 40 bete ei dauz, Euskerazaintza ere ortik ibiliko da, urteurrenen urtea izango da ba au!



Bixente Latiegi

Baina... zenbaki borobilak ospatu bear dira bakarrik? Norberak zelan ospatzen dauz urteak? Urtero!! Ba orixe! Zergaitik itxaron 40 urte bete arte? Gaur eguneko egoran aldizkari batek eta, gainera, orren eremu txikikoa, lurraldez eta irakurlez, 40 urte betetzea ez da txantxaetako kontua. Begiradatxo bate motea baino ez dago azkenengo 40 urteetan zenbat komunikabide, aldizkari, egunkari, irrati, telebista..., sortu eta desagertu egin diran. Benetan arro egoteko modukoa!!!





Seguru asko dirana eskertu bearrekoak, izandakoak eta diranak, baina daren gainetik, nire ustez, eta inori merizimendu txikienik ere kendu barik, Martin,... Martin Olazar. Bera barik aldizkari au bideragarri izango zan?. Ez dakit. Baina gaur bera barik ere emen dago. Zelan? Bidea erakutsi euskulako esango neuke. Bidea zein dan eta zelan egin: elburua argi, oztopoak gaudit, eutsi lanari, jausi eta altxatu, ekin, ekin eta ekin. Bein eta barriro ekinaren eta ezinaren kontua. Gestinoa edo kudeaketa deitzen dautse gaur egun. Dana dalako, txapela kentzen dot etxea zutunik iraun daian lan egiten dabenen aurrean! Eskerrik asko.

Ileroko aldizkariaren atzean lan andia dago eta ez pertsona askorik egiteko. Ona elduta “damu dot jauna” abestuteko unea etorri jat. Lanen artean aldizkariari jaten emotea dagoalako... idaztea, lantzoak bialtzea. Baina... (beti dago atxakiren bat) badirudi ez dogula ataritzen ilean ordu pare bat zeozer idazteko: Zer esanik ez? Esan bearrekoak taberna ondoko alkarrizketetara mugatu?, Lotsa? Bildurra? Beste edozeer ala danen naastea? Bakoitza bere pekatuen jabe egin daitela, ni neuretat.

40 urte oneetan zenbat geratu jakuz bidean? Zerrenda luzea litzateke bizitzaren legeak eraginda itzi gaituen pertsonena. Zerrenda luzea zenbatekoaren aldetik eta andia euren izakeraren aldetik. Seguru nago guregan batzuk beste batzuk baino eragin geiago



Iñaki Egurrola

Ipuin Sariketa 2016

EUSKERAZALEAK ALKARTEAK, urte guztietan lez aurten be, ipuin sariketea iragarten dau, oinarrri-arauak onek dirala:

- Ipuinak euskeraz eta erriak erabiltzen dauan euskalkia erabiliaz idatzia izan bearko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZAK argitaratua eta ZER aldizkarian erabiltzen dana.
- Ipuinak asmatuikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.
- Luzeera inu orrialdetik lau orrialdera, idazkifuz idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZERen argitaratuko dira. Sariak irabazten ez dabenak be bai ipuifaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.
- Azilaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEAREN etxean egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maioken erabagla eta ZERen agertuko da, Urtarrilean.

- Sariak bost izango dira:

1. ^a	300 euro
2. ^a	240 euro
3. ^a	180 euro
4. ^a	120 euro
5. ^a	60 euro

- Ipuinak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.
- Epea azilaren azkenera arte.
- Mesedez bialdu CD, disketea edo internet bidex:

info.euskerazaleak@gmail.com
 Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.
 48001 BILBAO
 Urrutizkina : 944 235 322
www.euskerazaleak.biz

Euskerazaleak Alkartea
 Laguntzaile BFA DFB
 Bilbo Foru Alkanduzko Diputazioaren Foru de Bilboak

izan dabena, urbilago euki doguzalako, arremon estuagoa izan dogulako, eremu desbardinetan ikusi garelako... baina, nigan asko edo gitxi danak izan dabe eragina arlo askotan gainera. Zelan aaztu Iñaki Zubiriren serio-tasuna, Josuren aber-tzaletasuna, Ant-tonen umore fin arratiarra, Iñakiren lana (iñurriak eura-erak ere ez) eta Martinen... Danak dana baina batzuk, bakoitzak berea, apur bat geiago.



www.euskerazaleak.biz

**1.200.000
BISITARI**

Ez dakit zelan itxi idazkia. Naigabean jasi eta “azkenengo mohikanoak” gara sentituz?. Etorkizun bako aldizkari eta euskalkia dala esanaz? Itxarpenari ateak eta leioak zabalduz? Bai!! 40 urte iraun badauz ZER onek 41 ere iraungo dauz baina ez gaitezana aaztu urtero-urtero “prorroga” edo luzapena eskatzeaz eta URTERO OSPATU DAIGUN. Au ZER da eta ez EDOZER.

2016-2017 IKASTURTEA 49. IKASTAROA

**BIZKAIERAK 49. IKASTAROA
IBU MAILA**

Egunak: astelen eta eguasten edo astearte eta eguencan
 Ordunak: Goiz eta arratsalde
 Ordana: 150 €
 Izena emoteko tokia: Euskerazaleak
 Colón de Larreategi, 14-2
 Urrutizkina 94 423 53 22
 Bilbao 48001
 Astera: urriaren 11an

**49. CURSO DE EUSKERA
BIZKAINO 5 NIVELES**

Días: lunes y miércoles o martes y jueves
 Horas: Mañana y tarde
 Curso completo: 150 €
 Inscripciones: Euskerazaleak
 Colón de Larreategi, 14-2
 Teléfono 94 423 53 22
 Bilbao 48001
 Comienzo: 11 de octubre

EUSKERAZALEAK ALKARTEA
EUSKALERRIAN EUSKERAZ

Laguntzaile BFA DFB
 Bilbo Foru Alkanduzko Diputazioaren Foru de Bilboak



Euskalerrira Kristautasuna

Zenon Uriguen, Pasiotarra

NOIZ sartu zan gure artean Kristoren Fedea? Egia esan gai onetan eztabaidak sortzen dira. Batzuk esaten dabe Kristo berbiztuta laster. Au geiegikeria esatea da. Beste batzuk, ostera, oso berandu izan zala. Gai au argitzeko azterketa zintzoa egin bear da gure istorian.

NUNDIK etorri zan gure errira **Kristoren fedea**? Galietako kairik garrantzitsuena zan Narbonatik? Tolosa aldetik? Tarragonatik? Ireneo donearen Lyondik? Bai, Kristoren Barri ona eguzkiaren argi bizia lez zabaldu zan errialde eta bazter askotara.

NORTZUK? Atzerrietako salerosleek, gudariak, lejiotara sartuta gero Euskalerrira itzulitako mutillek. Aro artan Jesukristoren jarraitzalle izatea, mixiolari izatea zan.

ZELAN? Ixil ixillik adizkidetasunezko giroan, aldi aretan zigorketa aroa zan, eta kristautasuna oiuka aldarrikatzea ez zan egoki.

LABURKI. II mendean, agian-agian, kristautasunaren lenengo izpiak. III mendean ziur zegoan sarturik Euskal Errialde batzuetan. IV mendean Euskaldunen artean agertzen dira elizaren erakundeak

SAN JABIER. III mendean agertzen da Kristau fedearen testigantza **goragarria Iruñan**. Bai, **Iruñan** loratuko da zoragarriko udabarria, eta Euskalerriko kristautasuna zeruko graziaren diztiraz beterik bizitzeko. Zelan izan zan ori Tolosako Saturnino goztain jaunak bialtzen dau iriburu onetara Honesto abadea Kristoren Barri Onaren zeruko azia zabaltzera Bere mezua laburra eta sakona izango da: “Ni Jaungoiko barri baten mixiolaria naz. Origaitik sasi jainkoak alde batera utzirik, JAUNGOIKO barri bat, erlijio barri bat, gizarte barri bat bizi nai dogu. Zer gertatu da ba? Belengo estalpetxo baten jaio da Jesukristo, Jaungoikoaren semea, gizon egiña, maitasunez, parkamenez eta errukitasunez beterik bizi izan da gure artean eta gizon gaizkilleak gurutzeratu egin dabe. Baña Jesukristo erioztza ezereztuz eta berbizturik, apostoluak mundu zabalera bialdu ditu Espiritu Santuaren graziaz ta indarrez gizarte barria sortu ta bizitzeko”. Iruñako entzuleen artean Firmo gizon jatorra, eta Eujenia bere andrea adi-adi dagoz.

Biotz batez alkaturik men egiñik ontzat artu dabe Honesto abadearen Barri Ona.

Fermin da euren seme bizkor-argia eta beste ainbat personen artean andik egun batzuetara kristau bateoa artzen dabe. Iruñan lenengo kristauak bateatu ziran ur putzua erakusten da. Fermin gazteari kristau erakuntza zoli eta bizi-bizia emoten dautse Kristoren mixiolari izan daiten. Eta Tolosara doakigu kristau gidarien artean Kristoren eta Espiritu Santuaren graziaz eta doaiñez bete daiten. Modu onetan kristau nortasun bereziaz jabeturik ekin eta ekin diardu Kristoren erreñua zabaltzen, elizaren sakramentuak eta serbitzuak betetzen. Urte gitxi barru apaiztuta ikusten dogu eta geroago Iruñako Gotzaiña izango da. Eta, Fermin gotzaiñak Naparroako erri askotan eten barik ibilli dabil Kristoren Barri Ona aldarrikatu eta zabaltzen. Kontau eziñak dira Kristoren federa datozenak, bai Napartarrak, eta baita be inguruetako errietan bizi diranak. Bere errialdea Kristau bide onean jarri dala ikusirik, zer egiten dau? Frantzia eta Europako beste errialdetan mixiolari sutsua izango da. Garai artako biziera ez da kristaumentzat bake-tsua, bai ostera arriskutsua. Eta denbora gitxi barru Amiens urian. espetxeratu eta torturatua izango da. Azkenik burua moztuta martirizatu izango da. Iruñan eta Naparroan uztailaren 7an sekulako jaialdi eta omenaldiak egiten dira bere omenez.

EMETERIO ETA ZELEDONIO SANTUAK

Bizente Latiegi, euskal idazlariak, gauza jakingarriak ikasi eta argitu ditu. Bere historiaren azterketan esaten dau. “314 urtean euskaldun gotzain bat dagola Elusan, Narbona ondoan. Ortik jakin dakigu III mendea baño lenago euskal kristau fededunak bizi zirala gure errialdean. Fedearen lenengo ezaugarria ez da gotzaiña, erri fededuna baño. Emeterio

eta Zeledonio. soldaduak ziran eta euren agintarien menpe gorrian bizi ziran. Eta jakingarri izango da nork eta zelan ontzat artu eta bizi ebela Kristau fedea, bigarren gizaldian. Gure istorian gauza arrigarria benetan! Eta are geiago Kristogatik bizia emotea. Garai onetan Kristoren fededunak zitalki zigortzen ziran. Eta zoritxarreko egun baten agintzen dautse Emeterio eta Zeledoniori sasi jainkoak gurtzeko eta Kristau fedea ukatzeko. Emeterio eta Zeledoniok, biok bat egiñik, esaten dabe naiago dabela bizia galdu Kristoren fedea ukatu baño leen. Eta berebiziko zigor eta torturak arturik martirizatuak izan ziran III mendean. Euren gorpuak, gaur egun, erriaren begirune eta fede zintzoaz, Kalaorrako gotzain elizan betiko atsedena



artzen dabe. Gotzaitegi onen parte eta kideak izan gara Araba, Bizkaia, Gipuzkoa XIX menderarte. Eta Kristoren fedearen goi argibideak eta ezin esan alako graziak artu eta bizi izan ditugu.

Prudenziok, kristau idazleak, onela idatzi eban Kalaorratik laugarren gizaldian: “Bruta quondan baskonun jentilitas” “Euskaldunen aspaldiko jentiltasun zakarra” Orrek esan nai dau laugarren mende baño leen kristauak zirala lurralde onetako ainbat biztanleak.

Bai, Euskal Errira kristautasuna. Eta Euskaldun, fededun, irugarren mendetik aurrera.

Gogoratzen aal duzu?

(Arene Onaindia)

EUSKERAZALEAK ALKARTEA. BILBAO.

2016eko sari leiaketa. seigarren saria

Kaixo amama, itzi ginduzuzanetik danak bardin diardu; bueno bardin... antzera baten. Gurasoak bananduta dagoz eta amagaz ez dot artu-emonik, egia esan ez dakit ezertxo be beraren ganean. Orain dala ilabete bi kartzelan sartu ebela entzun neban droga kontuengaitik baina ez deusat jaramon andirik egin oni, badakizu jentearen zurrumurruak... Eta aitari buruz zer esan? Bearretik etxera ailegetan danean garagardao botila artu, butakan jarri eta bertan pasetan dau arratsalde osoa, telebisinoa ikusten.

Orain, arte eszenikoen goi mailako titulua ataraten nago Bilbon; egia esan asko gustetan jat teatroaren mundu au. Antzetzuten asten nazenean nire errealidadetik ies egiten dot, beste iziera baten sartuta. Pisu bat alkilau dot Amaia, Jon eta Itsasogaz. Amaia eta Jon ezagututen dozuz onezkero, txikia nintzanean eta zugaz parkera joaten nintzanean eurekaz olgetan baineban; eta Itsaso batxilerrean ezagututako neska bat da, naiz eta denbora gitxian ezagutu nire lagunik onenetako bat da; a zelako pena zuk ezagutu ez izana!

Onezkero nire itaunka egongo zara ezta? Buuf.. nondik asi? Mutilen kontu onek arazoak besterik ez deustaz sortu. Arrigaria

izan arren gaur egun oraindino bardintasunaren aldeko borroka gogorrak egin bear izaten

doguz, bai nesken eskubideak lortuteko edota nire kasuan lez, omosexuulen eskubideak lortuteko. Bai amama, mutilak gustetan jatazala onartu nebanetik jentear arraro begiratuten deust. Eta ez da begirada bakarrik, de-



rrigorrezko bigarren ezkontzako 4. mailan bullyna jasan neban. Asieran irain gogorrena “maritxua” zan baina azkene-rako edozer esaten eustien. Batxillerra beste erri baten egin neban, ez bainebazan umemoko zikin areek geiago ikusi nai.

Batxillerraren ostean gauza onak pasetan jataz, edo gauza onetan bakarrik fijetan naz. Batxillergoa amaitu nebane-ko uda aretan Londresera joan nintzan agentzia bategaz, nire ingelesa obetu guran.

Bertan Gorka ezagutu neban, nire mutil laguna, zazpi ilabete gabilz alkarregaz. Gorkak 20 urte daukaz eta publi-zidadea ikasten dago. Imajinetan dozu, berak anuntzioen gi-doia egin eta nik bere anuntzioetan aktore papelak egitea? Beti pentsau izan dot maitemindu itza gogorregia dala, bai-na uste dot maiteminduta nagoala amana, onezkero ez da gustetea, ez.

Gaur santu guztien eguna da eta ortusantura joan naz zure ilarria garbituten eta lorakaz apainduten. Oso lora sor-ta polita jarri deutsut, kolore asko eta alaiak dauka-zan lora sorta; zeu be umorez egoten baizinan beti. Ilarriari begira nagoan bitartean zugaz pasautako momentu on guztiak gogora-tu dodaz, eta malkoak matrailean bera jausi jataz. Zuk gogoratuten dozu?

Txikia nintzanean, martitzen eta bariku guztietan zure base-rrira joaten nintzan. Eguraldi ona egoanean atarian pasetan genduzan arratsaldea, eguzkia desagertu arte, kontu kontari. Eta zeruak argituten ez ebanean beko suaren aurrean egoten gi-nan zuk egindako txokolate be-roa artuten.


Zure pasadizoak gogoan daukadaz oraindino, zuk berbaz berba kontau zeus-tazan lez:

“Ni gaztea nintzanean gerra bat jasan neban Xabier,



Gerra Zibil madarikatua; ondamedia besterik ekarri ez euskuna. Egun baltzak izan ziran areek laztana. Jorrailaren 26a zan, eta astelen guztietan lez Gernikan azoka eguna zan. Astero lez, goizeko zortzietan jaiki, gosaldu eta astoakaz Nabarnizetik bideari ekin geuntsan, ori bai, oinez. Bidean txakurra bildurtuta egoala igarri gendun, ez eban Gernikara ailegetarik gura. Aurrera egin ala tiroak, bonbak, egazkinak... entzuten asi ginan. Izan be, bando nazionalari, Euskal Gudarostea erasotuteko egun aproposa begitandu jakon. Egun arrunt bat izan bear ebana, istoriara pasau diran ordu latzak bizi izan genduzan. Eta ez ori bakarrik, erri txikietan be izan eban eragina; emakumeei ulea moztuten eutsien bizilagun guztien aurrean, gero errizino-orioa emon eta kaka dariola ebela kalean zear eroaten ebezan jenteak zirikatuteko eta zein aldetakoak ziran jakiteko. Gizonezkoak ostera, paseoa emoten eroan eta bertan fusilau egiten ebezan. Falangista madarikatuek olan il eben aitona, Xabier.”

Eta gogoan dot onako istoriak kontetan zeunstazanean zelan zure amarru guztia malkoetan isurten zendun. Momentu areetan ez neban jakiten zer esan, zer egin. Egia esan, zuk kontetan zeunstazanean barregura emoten eustan gaur egun seriotasunagaz artuten dodazan oneek. Gazteegia nintzan, ulertuko dozu. Baina edozer tontokeri esanda barre egiten zendun, eta ni eroi bat sentiduten nintzan.



Ez dakit zelan eskertu nigan pasautako orduak, baina bizitza beste modu baten ikusten erakutsi deustazu.

Gaur ordenadorearen aurrean, nire egunerokoaren beste zati bat emoten dauan arren, zure istoriak ez dira orrialde simple oneek, eguneroko oso bat baino. Nire bizitza.

Eskerrik asko, amama.

ADAN DE YARZA

Bere izen osoa da Carlos María Solano Adan de Yarza. Ispaster errian Adan de Yarza familiaren “Zubieta” jauregian jaio zan 1886 urtean José María eta Maria Niebes gurasoak izanik

J. Iñaki de Madariaga Vidal
Aita Zenon Uriguen ek euskeratua



IZAERA ETA ELBURUAK

“Gogoa dan tokian aldaparik ez” Adan de Yarza jatorriz datorrio bere nortasunaren bikaintasuna. Bere izaeraren baliotasunak ziran adimen argia, biotz leiala, gogo bizia eta asmo sendoak. Euskaldunaren gogo ekimen aundienetara doanean nork eten bere asmo gorenak, eta gure erriaren aldeko ekintzak?. Adan de Yarza bezelako jendea ez da edonun aurkitzen. Bere bizibidean ikusiko ditugu emaitzik onenak, sendo aritzen dalako, kementsua dalako, arpegia emoteko izango dauan eragaitik, eta lanerako daukan gaitasunagaitik. Bai, “gogoa dan tokian aldaparik ez”

IKASTALDIAK ETA EZKONTZA

Madrid urian egingo ditu goi ikasketak, batez be, Bellas Artes gaietan Jose Muñoz Suay irakaslearekin. Bellas artesen egindako ikasteak ondorio onak emongo dautsoz. Bai, erakusketa batean aurkeztzen dau berak egiñiko paisaia “Ondarreta Ondartza” ekin ta ekin diardu margolaritzan laukiak egiñez, baita be apaindurak teatrorako, Lekeitioko Batzokian jartzeko, eta beste bi arte lanak “Manu Soro” izenagaz. (1920)

Ezkondu zan Marabillas Gil Delgadorekin, eta sortzi seme alaba izan zituen. Geroago Markes de Socorro izan zan baña iñoiz ez eban erabilli tutulu ori. 1913 urtean diputatu autatua izan zan Markiña aldetik 2.473 botuakin.

ERRIAREN ALDE EKINTZAK


Adan de Yarza familiak, Lekeition, XIX mendean “pino insignis” Californiatik ekarririk lenengoz erein ta landatu ebazan Amoroto lurraldean, klimatizazio probak bear dan moduan egiñik. Adan de Yarzak, diputatua zalako legezko lizentzia ta baimena lorturik.

1931 urtean Lekeitioko Udalarri auto Renault bat emon eutson, batez be, erriko gaxoak ospitalera eroan eta etxeratzeko. Udalak opari eder ori pozik arturik esker-ona adierazi eban akta batean. Baita ere bere txoferra, Luis Jauregi, prest egoteko erriaren premiñaldietan.

Urte batzuetan Mendexako alkate izan zan. 1932 Lekeitioko batzokiaren mai-buru eta 1935 urtean, Bizkai Buru Batzar PNV-ren bazkide ere izanik.

GIZARTEAREN ONGILLEA.

1937 urtean gerrari anka egiñik Iparraldera Joan eta Halsou errian bizirik Euskadi Buru Batzarrean bazkide autatua izan zan. Eta bere biotzaren aberri eta abertzaleen zaletasunez beterik miragarritzko laguntza emoten eutsen euren larrialdietan.”Geu garan artean gure mundua” Erri onetan il zan 1949 urtean 62 urtekin. G.B.



Kristobal Kolon, Nafarroako IVn Karlos erregearen Semea izan ote zan? (XXVI)

Kolon´tar Kristobal, bere izaeraren jakin-eza.

-Egin dogun Jainkoaren legez kanpoko zeazkuntza bidetik, errez ulertu leike, orduko katolikotasun alditan, onek euki eben al-osokeriaren agindutik kanpo, ez ebela gure iñor geiago bere ondoan, bestela Aita Santuak buru gaiñean, ekialdeko Persa kaizerrak eroaten eben iru koroako kopaletaren antzera, bear eban aginbidezko omen-barik geratuko zan, eta ez zan egokiena eurak euki eben naikunderako, Berd eta Martorell´tar Gabirel´ek, bere lan bikaiñ onetan erakusten daukun lez.


-Badagoz beste maltzurtasunezko zital errukari batzuk be, eta nik uste dot ondo zeaztuta geratu dirala, IVn Karlos Bianako printzearen aita IIn Juan eta bere anai-orde edo ugazanaia IIn Fernando katolikuaren zeazkuntzak azaldu doguzenean.

IIn Juan eta IIn Fernandoren debekuak, Nafartar erregetza menperatzeko euki ebezan asmotik izen leikezalako, edo ta alboratuta iztea



geiago egokitzen jakiezalako, ez dot uste Kolonen izatasuna garrantzi aundia euki ba eben be, orren erruagaitik aipamen barik geratuko zenik, Fernandoren maltzurrezko lotsabakokeriak ez ziralako egin barik geratuko, Kolonen aipamenak daukana baiño garrantzi aundiagoko gauzaren gaiñetik aldatu zalako.

Nik uste dok, lenengo aipamenagaitik izan zala zalan-tzarik gabe.



Euskalerriri begira.

Gaur sortzen diran gauzakaz, Euskaldun guztiak jakin bear gendun, espainol menperatzail onekaz ezin garala etxe barru baten bizi.

Eurak kaizarkerizko menperatzailleak izanda, ta gure *“Jaungoiko ta Lege Zarragaz”* demokrazizko askatasunaren izaerazko sinismenean, ez garalako ulermen ezberdiñ orreikaz iraungarritasunean bizitzeko gai, eta gitxiago, beartuta laterrizko batzango eritzi orreik goitikberaiño ustelduta dagozenean, gure demokraziaren askatasunezko sinismenak euren serbitzura ipinteko.

Goian, ezeren txantxa barik geratu da naiko argi, erri baktza bere bereiztasunezko izaerakin izan bear dala osagarritasunezkoa beste erriekaz, ordezkartzako arloetan nortasun aundiz jokatura, ekintza orreitan geiegian dagozelako norkeriaren kaizarkerizko: *“El destino en lo Universal”* eta *“Nacional katolicismo”* orreik, bereztasu-

naren lapurtza orreik ustel usaiña eukinez gain, bere inguru guztia usteltzen dabelako.

Europa, jakinezko sinistarezian ipini edo ta eskuratu bear dogu, Europako Euskalerrri zarrrena eta Paleolitiko-Neolitikoa-ren askatasunezko demokrazian AITORTZAILLE dana, ezin dalako bizi iñoren menpekotasunean, naita onena izanda be.

Bide batez, Europari jakinarezian ipini, daukezan arazoak ez dirrela diruzko ta merkantil arazoak, errigizartearen askatasunezko demokrazian, nortasunaren ekanduzko arazoak baizik, Europako bizkidetasunak lenengo eskatzen dauana, bere giza ta gizarteko ekanduak zaintzea dalako.

Len, borroka nagusi bat egin da, dan guztia utsetik osterazteko asmoetan egiten zan, edo eta salerosketetan maltzurkeriz jokatzeko zalako dirua beren asierako balioetik arrotu edo puztu egiten zanean, diruaren balioa merkatuz konpontzen ziran ordezkartzaren orekak gizaren eragilletasunezko ardurean osterazteko aukera barriak eukiteko.

Gaurko euroari baiña, ezin jako ikuturik egin bear ikusten dogunagaitik, eta gizartea gaur legearen orekazko ordezkartzan bizi al izateko, lortu dabezan eskubideko tresneritik asi dira murrizketak egiten, gizaren eskubideko arduran kontuan euki barik, giza-seme milloi asko, bear gorrietara bialduten dabela, bear dogun guztia diruaren serbitzura ipini dabelako.

Diru ta merkantil tresneriak, ez dira European bizia daukenak, bizia daukezanak bere nortasun aundi-




ko seme-alaba ta errigizarteak dira, eta egin bear doguzan eragilletasun guztiak giza-semearen serbitzura izan bear dira.

Eta orrein arteko oreka ta ekanduak dira ondo zaindu bear direnak, diru ta merkantilezko eragipideak zor-eskubidearen ordezkartzan on bideratuta, bereztasunezko legearen ekandu edo ta orekazko ondorio lez agertu dai-tezen.

Maltzurrezko menpekotasun ta ulermen ezberdiñeko errigizarte-naspil batetik eta gaiñera alde bat menperatzailla izaten bada, zeozer urtengo ote leuke argitasunekin?.

Bizi onetan egiten diran gauza guztietan, ez ba dira egiten gauza berak eskatzen dauazan benetako edo ta berak bear dauazan legezko baldintzakin, egiten dan gauza guztia, utsezko porrot aundi baten agertzen da, okerrezko bidetik egiten doguna, oker agertzen dalako, mundu fisiko onen jarraidun edo lojikazko ondorio bidetik.





Nork esango leuke gagozan gizaldi onetan, norkeriz eragiten diran maltzur-guzurtiaren diru lapurketa guztiak, Jainkoaren Legezko ordezkari izan arduratuta bizi direnak ostera ordaindu bear dabezala, Nizeatik maltzurrez datozan batzango ta menpekotasunezko kaizar agintaritzazko mailla orreik, daukezan norkeri orreitan zaintzeko.

Begitu, gaur egunean non agetzen jaku “dirua” edo ta “urrezko zekorra” benetako sasi-jainko lez.

Zer egin ?.

Benetako Jainko Egillearen Legeak, edo ta bereztutako gai-mundu onen legeak berrezkuratuta, berezko nortasunaren ardurapean ostera ezarri, iñork ez daukelako eskubiderik, beste nortasunezkoaren berezko ardurak, norkeriaren menpeko alegiñetan eroateko, gaur dauka-guzan Laterri menperatzaile oneik egiten daben lez.

Euskalerriko seme-alabak daukagun berezko ordezkari ardureagaz adoz agertzen bagara, ganorabako alderdikeri onetatik iges egin bear geunke, gure Euskadi edo ta Euskalerra maite onek bere askatasunezko ernatzailletasunean bai eta demokraziaren sortzaille izateagaz, gure burugogorkeritasunagaitik ez bazan izan, berak ezereztu egiten dabezelako alderdikeri zital orreik.

Gulako erri demokratiko batek, bere esku-bide ta nortasunaren ordezkarietzako ekanduak zaintzeko, ez dabelako bear, ez eskubi, ez ezkerreko alderdikeririk, erriaren elburuari begitu baiño, bestela beti egongo gara eritzi orreikaz lotuta.

Siñeztu gauza oneik egiak direla, “KERI” guzti orreik lotuta izten gaitueulako.

Eta orduan alegiñ aundienak egin, gagozan espainol laterritasunezko menpetik urteteko len bait len, Europa askatasunaren zentzunezko



demokrazi on baten ezartzea gura ba dogu, danok Jainkoak agintzen dauzkun eran bizi gaitezen.

Gazteari zer esan ?.

Euskal seme zintzo lez, etxe-ko-edestiaren ezauntzazko errotik ondo ebatuta, geiago arduratu daitezela belaunaldi lez.

Euskal jendekuntzazko nortasunaren ondorengotasunean daukien ordezko ardureagaz, norkerizko maltzur batzango menperatzaillea-

ren geiegizko jan-edate ta astokerizko lilluratzailaren eragipeneko alegiñetatik urrundu daitezela, gauza orreik, zuen euskal ekanduzko nortasunak ezereztuta, **EUSKALERRIA MENPERATUTA** eukiteko alegiñak diralako.



Eta alderdikeri barik, euskalerrriaren arduradunezko eragill onak izan, orrela irabazten dalako Euskalerrriko zoriontasuna Europako beste berezko errigizarte artean; **JAINKOAREN LEGEZKO BALDINTZAK ARDURA AUNDIENEAN ORDEZKATUTA.**

Atutxa'tar Paul

Zornotzan 2.015'ko urtean Epaila'ren 21'ean

Euskaldun barrientzat ikasten

Zazpi utsak



ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... tar

..... kalean (auzoan..... zenbakian

..... errian, errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko (ogeitamabost euro) kontu onetan:

Euskerazaleak, Bilbao bizkaia kutxa : ES28 2095 0000 74 2000089615 zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN **"ZER"**. Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!

Ni naiz txit gauza gozoa
eta poztasun osoa,
beltza naiz ta zuria,
indarra naiz ta garboa
eta deritzat ardoa.

Noe gizon aditua,
zedorren pentsamendua
izan zen txit aundia,
paratzea maastia;
zu zara ardoren autore,
O! Zorioneko Noe

Edari maitagarria,
tristearen alegria!
Duzu alaitzen begia,
kentzen melankonia,
mutua ipintzen kantari
eta errena dantzari.

Eltziego (Arabako Errioxa)